

Pribatuen Iragarkiak

GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA

IRAGARKIA, Ohiko Batzar Nagusirako dei egi-
ten duena. 17917

ARABA ETA GASTEIZKO AURREZKI KUTXA

IRAGARKIA, Ohiko Batzar Nagusirako dei egi-
ten duena. 17918

BILBAO BIZKAIA KUTXA

IRAGARKIA, Ohiko Batzar Nagusirako deialdia
egiten duena. 17919

Anuncios Particulares

CAJA DE AHORROS Y MONTE DE PIEDAD DE GIPUZKOA Y SAN SEBASTIÁN

ANUNCIO relativo a la convocatoria de Asamblea
General Ordinaria. 17917

CAJA DE AHORROS DE VITORIA Y ÁLAVA

ANUNCIO relativo a la convocatoria de Asamblea
General Ordinaria. 17918

BILBAO BIZKAIA KUTXA

ANUNCIO relativo a la convocatoria de Asamblea
General Ordinaria. 17919

Xedapen Orokorrak

OSASUN SAILA

4906

251/2005 DEKRETUA, irailaren 20ko, Estatuko Osasun Sistemaren farmazia-prestaziorako sarbiderako erabiltzaileen identifikazioa erregulatzen duena.

Estatuko Osasun Sistemaren kohesioa eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 7. artikuluak farmazia-prestaziorako Estatuko Osasun Sisteman prestazionen katalogoan sartzen du. 16. artikuluaren arabera, prestazio honek barne hartzen ditu botikak eta produktu sanitarioak eta pazienteek beren behar klinikoen arabera egokituta jaso ditzaten bideratutako jarduera multzoa, behar individualen araberako dosi zehatzetan, denboraldi egokian eta eurentzat eta komunitatearentzat ahalik eta kostu txikienarekin, eta prestazio hau abenduaren 20ko 25/1990 Botiken Legean xedatutakoarekin eta produktu sanitarioen arautegia eta gainontzeko xedapen aplikagarriekin eraentzen da.

Botiken Legeak, Estatuko Osasun Sisteman botiken arrazoizko erabilera dagokion atalaren barnean, 95.3 artikuluan xedatzen du euren prestaziorako eskubidea pazienteen betebeharretako bat dela, Estatuko Osasun Sistemako pertsonal fakultatiboak edo farmazia emai-leak hala eskatzen dienean.

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

4906

DECRETO 251/2005, de 20 de septiembre, por el que se regula la identificación de las personas usuarias para el acceso a la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud.

El artículo 7 de la Ley 16/2003, de 28 de mayo, de cohesión y calidad del Sistema Nacional de Salud, incluye la prestación farmacéutica dentro del catálogo de prestaciones del Sistema Nacional de Salud. Esta prestación comprende, según el artículo 16, los medicamentos y productos sanitarios y el conjunto de actuaciones encaminadas a que los pacientes los reciban de forma adecuada a sus necesidades clínicas, en las dosis precisas según sus requerimientos individuales, durante el período de tiempo adecuado y al menor coste posible para ellos y la comunidad, y se rige por lo dispuesto en la Ley 25/1990, de 20 de diciembre, del Medicamento, y por la normativa en materia de productos sanitarios y demás disposiciones aplicables.

Por su parte, la Ley del Medicamento, dentro del capítulo dedicado al uso racional de los medicamentos en el Sistema Nacional de Salud, establece en el artículo 95.3 que una de las obligaciones de los pacientes es justificar su derecho a la prestación cuando así les sea requerido por el personal facultativo del Sistema Nacional de Salud o en las farmacias dispensadoras.

Lehen aipatutako 16/2003 Legeak 57. artikuluan xedatzen du atentzio sanitariozko prestazioetarako hiritarrantzko sarbidea Estatuko Osasun Sistemak eman-dako osasun-txartel indibidualaren bidez emango dela, beronen titularraren identifikazioa, prestazio farmazeutikoari dagokionez duen eskubidea eta laguntza sanitarioa emango dion osasun-zerbitzua edo entitate ardu-radunari buruzko oinarrizko datuak egiaztatzen dituen administrazio-dokumentu gisa. Artikulu hau urtarrilaren 30eko 183/2004 Errege Dekretuaren bidez garatuta, osasun-txartel indibiduala erregulatzen duena, ondorioz, Estatuko Osasun Sistemaren onuradun guztiak euren osasun-txartel indibiduala dute, dagokien Autonomia Erkidegoak emanik.

Euskal Autonomia Erkidegoan askoz lehenago 252/1988 Dekretua eman zen, urriaren 4koa, osasun-txartel indibidualaren erabilera ezarri, fakultatiboen adskripzioa erregulatu eta, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan, pediatría atentziorako adin-muga ezartzen duena. Honela, osasun-txartel indibidualaren bidez Osakidetzako pazienteak identifikaturik zeuden.

Guzti honi gehitu behar zaio Euskadiko Osasun Antolamenduari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 4.3 artikuluak xedatzen duela sarbiderako prozedura, administrazioa eta osasun-zerbitzuen prestazio erre-gimena arauz erregulatuko dela.

Osasun Saila Estatuko Osasun Sistemaren farmazia-prestaziorako sarbide bezala errezeta elektronikoa ezartzeko proiektu pilotu bat garatzen ari dela kontuan izanik, errezeta egin zein botikak ematean erabiltzailearen identifikazioa eskatzen duena, aipatu identifikazioa nola egin erregulatu behar da.

Hau egiterakoan ez dugu ahantzi behar atzerriko zenbait pertsonak Estatuko Osasun Sistemara sarbidea dutela eta, ondorioz, farmazia-prestaziora, nahiz eta osasun txartel indibidualik izan ez. Edo Europar Batasuneko hiritarrak dira, langile migratzaleen Gizarte Segurantzako Europako Erkidegoetako Administratio Batzordearen 2003ko ekainaren 18ko 2003/751/CE Erabakiak, 189. zenbakia, 2003/752/CE Erabakiak, 190. zenbakia, eta 2003/753/CE Erabakiak, 191. zenbakia, aipatzen duten Europako osasun-txartela dute-nak, edo Osasun Sailak emaniko asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria duten atzerriko hiritarrak, atzerritarrek Spainian dituzten eskubideak eta askatasunak eta beren gizarteratzeri buruzko urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren 12. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Horrenbestez, Elkargo Ofizialei eta sektoreko gizarte erakunde nagusiei entzun ostean, Euskadiko Aholkularitza Batzorde Juridikoarekin bat, Osasun sailburuak halaxe proposatuta, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak

De nuevo la Ley 16/2003, antes citada, dispone en su artículo 57 que el acceso de los ciudadanos a las prestaciones de la atención sanitaria que proporciona el Sistema Nacional de Salud se facilitará a través de la tarjeta sanitaria individual, como documento administrativo que acredita los datos básicos de identificación de su titular, del derecho que le asiste en relación con la prestación farmacéutica y del servicio de salud o entidad responsable de la asistencia sanitaria. Este artículo ha sido desarrollado mediante el Real Decreto 183/2004, de 30 de enero, por el que se regula la tarjeta sanitaria individual, con el resultado de que todas las personas beneficiarias del Sistema Nacional de Salud disponen ya de su tarjeta sanitaria individual emitida por su correspondiente Comunidad Autónoma.

En la Comunidad Autónoma del País Vasco muchos años antes ya se había dictado el Decreto 252/1988, de 4 de octubre, por el que se implanta el uso de la tarjeta individual sanitaria, se regula la adscripción de facultativos, y se establece la edad que delimita la atención pediátrica, en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza, de forma que los pacientes de este último ya estaban identificados por la tarjeta individual sanitaria.

A todo ello hay que añadir que el artículo 4.3 de la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi dispone que reglamentariamente se regulará el procedimiento de acceso, administración y régimen de prestación de los servicios sanitarios.

Teniendo en cuenta que el Departamento de Sanidad está desarrollando un proyecto piloto para la implantación de la receta electrónica como vía de acceso a la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud que requiere la identificación de la persona usuaria tanto en el momento de la prescripción como en el de la dispensación, procede regular el modo en que se debe llevar a cabo dicha identificación.

Al hacerlo no debemos olvidar que determinadas personas extranjeras tienen acceso al Sistema Nacional de Salud y, en consecuencia, a la prestación farmacéutica, pese a carecer de tarjeta sanitaria individual. Se trata o bien de ciudadanos de la Unión Europea provistos de la tarjeta sanitaria europea a que se refieren la Decisión 2003/751/CE, número 189, la Decisión 2003/752/CE, número 190 y la Decisión 2003/753/CE, número 191, todas ellas de 18 de junio de 2003, de la Comisión Administrativa de la Comunidades Europeas para la Seguridad Social de los trabajadores migrantes, o bien de ciudadanos extranjeros a quienes el Departamento de Sanidad dota de un documento provisional de asistencia sanitaria, de conformidad con lo previsto en el artículo 12 de la Ley Orgánica 4/2000, de 11 de enero, de derechos y libertades de los extranjeros en España y su integración social.

Por todo lo expuesto, oídos los Colegios Oficiales y las organizaciones sociales más representativas del sector, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, a propuesta del Consejero de Sanidad, previa de-

2005eko irailaren 20an egindako bilkuran gaia eztabai-datu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Helburua.

Dekretu honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoan Estatuko Osasun Sistemaren farmazia-prestazio-rako sarbiderako onuradunen identifikazioa erregulatzea da.

2. artikulua.— Identifikazioa errezaera egiterakoan.

1.— Estatuko Osasun Sistemako farmazia-prestazioaren onuradunak, aipatu prestazioa agintzko, zentroetan eta osasun-zerbitzu baimenduetan osasun-txartel indibiduala aurkeztuz identifikatu behar dira.

2.— Osasun-txartel indibidualaren eskabidea izapidezten ari direnak behin-behineko ordezkagiria aurkeztuz identifikatu behar dira.

3.— Osasun-txartel indibidualik ez duten atzerritarrauk Europako osasun-txartela edo Osasun Sailak eman-dako asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria aurkeztuz identifikatu behar dira, kasuaren arabera.

4.— Onuradunak osasun-txartel indibiduala, behin-behineko ordezkagiria, Europako osasun-txartela edo asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria aurkeztu behar du; zentrora edo osasun-zerbitzura ezin bada berau joan, bere izenean nor joango den adierazi beharko du.

3. artikulua.— Datuak gordailutzea errezeptetan.

Errezeta egiterakoan, pertsonal fakultatiboak Erre-zeta Medikoei buruzko irailaren 26ko 1910/1984 Errege Dekretuaren 7. artikulan aurreikusitako datuak adierazi behar ditu, ondoren adierazten direnekin batera:

a) Identifikatzeko aurkeztutako agiria onuradunaren osasun-txartel indibiduala denean: osasun-txartelaren identifikazio-kode pertsonala.

b) Identifikatzeko aurkeztutako agiria Europako osasun-txartela denean: txartelaren titulararen identifikazio-zenbakia eta identifikazio-txartelaren zenbaki logikoa.

c) Identifikatzeko aurkeztutako agiria asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria denean: erregistro-zenbakia.

4. artikulua.— Identifikazioa botikak ematerakoan.

1.— Estatuko Osasun Sistemako farmazia-prestazioaren onuradunak aipatu prestazioa farmazia-bulegoetan jasotzeko, errezaera egiterakoan identifikatzeko aurkez-

liberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de septiembre de 2005,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

El presente Decreto tiene por objeto regular la identificación de las personas beneficiarias para el acceso a la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 2.— Identificación en el momento de la prescripción.

1.— Las personas beneficiarias de la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud deben identificarse en los centros y servicios sanitarios autorizados para prescribir dicha prestación presentando la tarjeta sanitaria individual.

2.— Las personas cuya solicitud de tarjeta sanitaria individual se encuentre en trámite, deben identificarse presentando el resguardo provisional de la misma.

3.— Las personas extranjeras que carezcan de tarjeta sanitaria individual deben identificarse presentando la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria emitido por el Departamento de Salud, según los casos.

4.— Debe presentar la tarjeta sanitaria individual, el resguardo provisional, la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria la propia persona beneficiaria, salvo que se encuentre imposibilitada para acudir por sí misma al centro o servicio sanitario, en cuyo caso la debe presentar quien acuda en su nombre.

Artículo 3.— Consignación de datos en las recetas.

En el momento de la prescripción, el personal facultativo debe hacer constar en la receta los datos previstos en el artículo 7 del Real Decreto 1910/1984, de 26 de septiembre, de Recetas Médicas, junto con los que se indican a continuación:

a) Cuando el documento presentado para la identificación sea la tarjeta sanitaria individual de la persona beneficiaria: el código de identificación personal de la tarjeta sanitaria.

b) Cuando el documento presentado para la identificación sea la tarjeta sanitaria europea: el número de identificación del titular de la tarjeta y el número lógico de identificación de la tarjeta.

c) Cuando el documento presentado para la identificación sea el documento provisional de asistencia sanitaria: el número de registro.

Artículo 4.— Identificación en el momento de la dispensación.

1.— Las personas beneficiarias de la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud deben identificarse en las oficinas de farmacia a las que acudan pa-

tutako osasun-txartel indibiduala, behin-behineko ordezkagiria, Europako osasun-txartela edo Osasun Sailak emandako asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria aurkeztuz identifikatu behar dira.

2.- Onuradunak osasun-txartel indibiduala, behin-behineko ordezkagiria, Europako osasun-txartela edo asistentzia sanitarioko behin-behineko agiria aurkeztu behar du; ezin bada berau joan farmazia-bulegora, bere izenean nor joango den adierazi beharko du.

3.- Urgentzia kasuak salbuetsiak daude, halakoetan farmazia-bulegoko titularrak edo arduradunak, ordezoak edo laguntzaileak errezetan berean jasota utzi behar du, bere sinadurarekin batera.

5. artikulua.— Botikak ematea.

1.-3. artikuluan aipatutako datuak ez direnean ageri edo aipatu datuek ez dutenean onuradunaren identifikazorako osasun-txartel indibiduala, behin-behineko ordezkagiria, Europako osasun-txartela edo Osasun Sailak emandako asistentzia sanitarioko behin-behineko agiriko datuekin bat egiten, farmazia-bulegoek ez dituzte Estatuko Osasun Sistemako farmazia-prestazioaren errezetako botikak eman behar.

2.-4. artikuluan 3. idatz-zatian aurreikusitako urgentzia kasuetan ez dira Estatuko Osasun Sistemako farmazia-prestazioaren errezetako botikak eman behar, 3. artikuluan aipatutako datuak ez direnean ageri.

6. artikulua.— Datuen konfidentialtasuna eta era-bilpena.

1.- Farmazia-bulegoen titularrak osasun-txartel indibiduala, behin-behineko ordezkagiria, Europako osasun-txartela edo asistentzia sanitarioko behin-behineko agiriko datuen konfidentialtasuna gorde eta berauen zaintza egokia bermatzeko neurri aproposak hartu behar dituzte.

2.- Aipatu datuak Estatuko Osasun Sistemako farmazia-prestazioaren errezetako botikak ematetik sortutako funtzioetarako eta Osasun Sailari errezetak fakturatzeko erabil daitezke soil-soilik.

AZKEN XEDAPENA.— Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta sei hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko irailaren 20an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.

ra la dispensación de dicha prestación presentando la tarjeta sanitaria individual, el resguardo provisional, la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria emitido por el Departamento de Sanidad que hayan presentado para identificarse en el momento de la prescripción.

2.- Debe presentar la tarjeta sanitaria individual, el resguardo provisional, la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria la propia persona beneficiaria, salvo que se encuentre imposibilitada para acudir por sí misma a la oficina de farmacia, en cuyo caso la debe presentar quien acuda en su nombre.

3.- Se exceptúan los casos de urgencia, que la persona titular de la oficina de farmacia o, en su caso la farmacéutica o farmacéutico regente, sustituto o adjunto, debe hacer constar en la propia receta, junto con su firma.

Artículo 5.— Dispensación.

1.- Las oficinas de farmacia deben abstenerse de dispensar recetas de la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud en las que no consten los datos mencionados en el artículo 3 ó en las que dichos datos no concuerden con los de la tarjeta sanitaria individual, el resguardo provisional, la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria presentado para la identificación de la persona beneficiaria.

2.- En los casos de urgencia previstos en el apartado 3 del artículo 4 deben abstenerse de dispensar recetas de la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud en las que no consten los datos mencionados en el artículo 3.

Artículo 6.— Confidencialidad y utilización de los datos.

1.- Las personas titulares de las oficinas de farmacia están obligadas a mantener la confidencialidad de los datos de la tarjeta sanitaria individual, el resguardo provisional, la tarjeta sanitaria europea o el documento provisional de asistencia sanitaria y a adoptar las medidas idóneas para garantizar su correcta custodia.

2.- Dichos datos pueden utilizarse única y exclusivamente para las funciones derivadas de la dispensación de la prestación farmacéutica del Sistema Nacional de Salud y para la facturación de las recetas al Departamento de Sanidad.

DISPOSICIÓN FINAL.— Entrada en vigor.

Este Decreto entrará en vigor a los seis meses de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 20 de septiembre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL M.^a INCLÁN IRIBAR.